

2006ko otsailaren 21ean, ASTEARTEA, arratsaldeko ZORTZI ETA ERDIETAN, Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan egingo den Ohiko Batzarrera deitzen zaitugu, ondoren aipatzen diren gaiak aztertzeko.

EGUNEKO AZTERGAIAK.

- 1.- 2.006KO URTARRILAREN 24KO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.
- 2.- ZENBAIT DEKRETUREN BERRI EMATEA.
- 3.-ZENBAIT LAN ETA IREKITZE BAIMEN ESKAERA ETA KONTSULTA URBANISTIKOAK ETA SEGREGAZIOAK.
- 4.- UDAL PLANGINTZARAKO ORDEZKO ARAUEN BERRAZTERPENAREN HASIERAKO ONARPENAREN AURKA TARTERATUTAKO ALEGAZIOEN AZTERKETA.
- 5.-“HAURRESKOLAK PARTZUERGOA”REN ESTATUTOAK, HIRU URTETIK BEHERAKO HAURREN ESKOLAK ETA HAUEI ZUZENDUTAKO ASISTENTZIA ETA HEZKUNTZA-ARRETA KUDEATZEKO “HAURRESKOLAK PARTZUERGOA”REN ERAKETARAKO EUSKO JAURLARITZA ETA ADUNAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, ETA HITZARMEN HONEN ERANSKINA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA. ETA ZIZURKILEN KOKATURIK DAGOEN HAURRESKOLAKO GESTIOA AURRERA ERAMATEKO ZIZURKILGO UDALAREKIN SINATU BEHARREKO KONTRATUA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.
- 6.- ZENBAIT MOZIOEN AZTERKETA.
- 7.- ZENBAIT DIRULAGUNTZEN AZTERKETA.
- 8.- ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA.
- 9.-ALKATEGOAREN INFORMAZIOA.
- 10.-GALDE ERANTZUNAK.

Aduna, 2006ko otsailak 16.

ALKATEA.

2.006KO OTSAILAK 21.

OHIKO PLENOA.

Bertaratuak:

ALKATEA

Arantza Aburuza Alkorta.

ZINEGOTZIAK:

Bertaratuak:

Mikel Sarasola Asteasuain.

Iñaki Aristeta Gurrutxaga.

Antton Artola Ibarguren.

Javier Zabala Zabala.

Miren Aburuza Alkorta.

Bertaratu gabea:

Patxi Ormaetxea Otegi.

IDAZKARIA:

Maria Etxeberria Urretabizkaia.

Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta seiko otsailaren hogeita bateko hogeita bat ordu eta hamabost minutuak izanik, Adunako Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

LEHENENGO PUNTUA:

2.006KO URTARRILAREN 24KO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

Alkateak 2006ko urtarrilaren 24ko aktaren berri ematen du eta aurrean aipaturiko zinegotziek aho batez onartzen dute.

BIGARREN PUNTUA:
ZENBAIT DEKRETUREN BERRI EMATEA.

Alkateak azken Plenoa egin zenetik ondoren aipatzen diren Dekretuak eman dituela jakinerazten du:

1.- Iñaki Aristeta Gurrutxaga Zinegotziari eskuordetza ematea Jokin Aristeta Gurruchaga eta Sara Fernandez Fernandez Jaun/ Andereen arteko ezkontza zibila ospatzeko (12/2006 Alkatetza Ebazpena).

2.- M^a Jose Baltasar Alberro andereari Lardi auzoan lizentziarik gabe egindako obrak geldiarazteko errekerimentua (13/2006 Alkatetza Ebazpena).

3.- Jokin Izagirre Zabala Jaunari 3.areako 3.2hirigintz exekuziozko unitateari dagokion urbanizazioko obrak bermatzeko jarritako abala ez itzultzea (14/2006 Alkatetza Ebazpena).

4.- Juan Cruz Muñoa Marcos Jaunari Eptisa Cinsaren izenean sondeoak egiteko baimena ematea (15/2006 Alkatetza Ebazpena).

5.- Jose Juan Eceiza Iturzaeta Jaunari 8 egunetako epea ematea Txantxanea baserriaren inguruan dagoen lurzoru publikoan dagoen karabana kentzeko (16/2006 Alkatetza Ebazpena).

6.- Angel M^a Sarasua Jaunari Julian Lizarraga Jaunak Maderas Hol-Atz-en izenean tramitatzen ari den hirigintz kontsultaren inguruan idatzia bidaltzea (17/2006 Alkatetza Ebazpena).

7.- 2.005.urteko 4.hiruhilabeteko ur hornidura zerbitzuagatiko tasaren errolda onartzea (18/2006 Alkatetza Ebazpena).

8.- Miguel Arrospide Aburuza Jaunaren izenean dagoen 1386-DSG matrikuladun ibilgailuaren 2.006 urtetik aurrerako Trakzio Mekanikozko Ibilgailuari buruzko bonifikazioa 2.005eko azaroaren 15eko Plenoan erabaki bezela ez onartzea (19/2006 Alkatetza Ebazpena).

9.- Construcciones Lantegui, S.A-ri egindako isurketak kentzeko errekerimentua (20/2006 Alkatetza Ebazpena).

10.- Jose Vicente Elizegi Arrillaga Jaunari Aragi Bulegoak, S.L.-ren izenean Adunako H.I.B. 3.1-ari buruz aurkezturiko konpentsazio proiektua ez onartzea (21/2006 Alkatetza Ebazpena).

11.- Zubitxiki Industriguneko 14.zenbakian iharduera martxan jartzeko dagokion proiektua Udaletxean aurkezteko errekerimentua (22/2006 Alkatetza Ebazpena).

12.- Zubitxiki Industriguneko 10.zenbakian iharduera martxan jartzeko dagokion proiektua Udaletxean aurkezteko errekerimentua (23/2006 Alkatetza Ebazpena).

13.- Ignacio Arruti Iturrioz Jaunaren izenean dagoen 6938-BHB matrikuladun ibilgailuaren 2.006 urteko Trakzio Mekanikozko Ibilgailuari buruzko exentzioa onartzea (24/2006 Alkatetza Ebazpena).

14.- Iñaki Gorostidi Jaunari 15egunetako epea ematea Apakintza baserriaren ondoan duen txabolako eranskinaren obrak botatzeko (25/2006 Alkatetza Ebazpena).

15.- Pablo Zumeta Zubelzu Jaunari Zumeta Bizitegia, S.L.-ren izenean gas propanoko lurrazpiko tanke baterako eskaturiko baimenerako obra amaierako proiektua aurkezteko errekerimentua (26/2005 Alkatetza Ebazpena).

16.- Transportes Paino, S.L.-ri 15 egunetako epea ematea tramitatzen ari den espedientean obren amaierako ziurtagiria aurkezteko (27/2006 Alkatetza Ebazpena).

17.-Ainhoa Cebada Andereari Zabalaundi etxebizitzaren ezkerreko aldearen habitabilitate baimena ematea (28/2006 Alkatetza Ebazpena).

18.- Leire Albisu Ansa eta Oskar Zubillaga Apezetxea Jaun/ Andereei Adunako 3.alorreko 3.4A orubean sendibakarreko etxebizitzaren habitabilitate baimena ematea (29/2006 Alkatetza Ebazpena).

19.- Udalarena den Errekaldia izeneko terrenotik 2.280 m2 segregatzeko baimena (30/2006 Alkatetza Ebazpena).

20.- Jose Juan Eceiza Iturzaeta Jaunari 15 egunetako epea ematea agindutako obrak botatzeko (31/2006 Alkatetza Ebazpena).

21.- Iñaki Ayerbe Izaguirre Jauna EYDIMEN 2.000, S.L.-ren izenean tramitatzen ari den goratze-makineria erreparatzeko tailerra proiektuarentzako espedientean Alkatetzaren txosten faboragarria ematea (32/2006 Alkatetza Ebazpena).

22.- Gerardo Rodiño Jaunari 15 egunetako epea ematea Adunako Gaintza Bekoa etxearen B aldearen habitabilitatea emateko dokumentazioa aurkezteko (33/2006 Alkatetza Ebazpena).

23.- Jose Eduardo San Jose Jaunari 15 egunetako epea ematea Adunako Gaintza Bekoa etxearen B aldearen habitabilitatea emateko dokumentazioa aurkezteko (34/2006 Alkatetza Ebazpena).

24.- Rosa Otaegi Andereari Ulanberro baserriko eta inguruko obrak geldiarazteko eta legeztatzeko errekerimentua jakineraztea (35/2006 Alkatetza Ebazpena).

HIRUGARREN PUNTUA:
ZENBAIT LAN ETA IREKITZE BAIMEN ESKAERA ETA KONTSULTA URBANISTIKOAK ETA SEGREGAZIOAK.

Ez dago eskaerarik.

LAUGARREN PUNTUA:
UDAL PLANGINTZARAKO ORDEZKO ARAUEN BERRAZTERPENAREN HASIERAKO ONARPENAREN AURKA TARTERATUTAKO ALEGAZIOEN AZTERKETA.

Udal Plangintzarako Ordezko Arauen berrazterpenaren haserako onarpenari egindako alegazioak aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, zera erabaki du:

* 1 zk. alegazioa: IONE ELIZARAN ARRUABARRENA andreak aurkeztua.

Alegazioaren edukia:

Iradokizunen idatzian eskatutakoa berresten du; zehazki:

A) Parke Publikoaren kokaguneari buruz bestelako aukerak aztertzea.

B) Edota, hori ezinezkoa bada, hartu beharreko erabakia gaur egungo lurjabearekin adostea.

Alegazioari dagokion erantzuna:

Beste hainbat aukera aztertu ondoren, eta jabeekin adostu daitezkeen erabakiak baldintzatu gabe, proposatutako kokapen hori da gure iritziz egokiena. Nolanahi ere, Udala prest dago lurjabeekin adostasunera iristeko.

Adierazitakoa aintzat harturik, ZERA ERABAKITZEN DA:

EZESTE A IONE ELIZARAN ARRUABARRENA andreak aurkeztutako alegazioa.

* 2 zk. alegazioa: JOSEFA ABURUZA EIZMENDI andreak aurkeztua.

Alegazioaren edukia:

14 Alorrean, “Eluts”, kokatutako lurzati baten jabe den aldetik, sail horri probetxamendu eskasa esleitu zaiola deritzo. Izan ere, batetik, Lur Legearen Aurreproiektuak eraikigarritasun handiagoa aurreikusten du lurzoru hiritargarran; eta bestetik, ez da ahaztu behar jabeekide bat baino gehiago egoteak, kudeaketa eragozten duela. Gainera, gaur egungo hiritartze zamak ezagutzen ez dituztenez, eraikigarritasun handiagoa eskatzen du, kudeatzeko modua egon dadin.

Alegazioari dagokion erantzuna:

Gaia xehetasun handiagoz aztertu ondoren, orain arte jarraitutako irizpideak aldatu dira. Gure iritziz, aipatu lursail horrek ezin du izan probetxamendurik; beraz, aurkeztutako alegazioak ez du aurrerabiderik.

Adierazitakoa aintzat harturik, ZERA ERABAKITZEN DA:

EZESTE JOSEFA ABURUZA EIZMENDI andreak aurkeztutako alegazioa.

* 3 zk. alegazioa: JOSE M^a ZAVALA ECHEVERRIA jaunak eta IZASKUN AIZPURUA RUIZ andreak aurkeztua

Alegazioaren edukia:

Zabale-txiki etxeko garaje eta lorategiaren gaineko afekzioa dago. Baina bide horretatik oso ibilgailu gutxi igarotzen denez, alegazio-jartzaileen esanetan aipatu bidearen proiektua egokitu egin beharko litzateke, garajeak eta lorategiak inolako afekziorik izan ez dezaten.

Alegazioari dagokion erantzuna:

Ikuspuntu teknikitik begiratuta, ezin da arindu alegazioa bultzatu duen afekzioa. Gainera, lehengo Arauek ezartzen zutenaren aldean, asko hobetu da.

Adierazitakoa aintzat harturik, ZERA ERABAKITZEN DA:

EZESTE A JOSE M^a ZAVALA ECHEVERRIA jaunak eta IZASKUN AIZPURUA RUIZ andreak aurkeztutako alegazioa.

* 4 zk. alegazioa: JUAN ZABALA GOÑI jaunak, JOSE LUIS AMENABAR IRAZUSTA jaunak, M^a PILAR AMENABAR IRAZUSTA andreak eta M^a JESUS AMENABAR IRAZUSTA andreak aurkeztua.

Alegazioaren edukia:

1. Ados daude Adunako Ibarrerako aurreikusitako den antolamendu orokorrarekin, nahiz eta 18. Alorraren “Erribera” mugaketan, GI-6310 errepeidea eta Sorabilla-Adunako Zubia batzen dituen bidea lotzeko xedez egingo den biribilgunea berria Agaramundo etxetik gertuegi geratuko den. Horrek kalte nabarmena eragingo die bai lurzatiari eta baita Agaramundo eraikinari ere; beraz, bide berria aipatu lurzatatik ahalik eta gehien urrun dadin eskatzen dute, eraikuntza berriak gutxieneko bizigarritasun, pribatutasun eta segurtasun baldintzak izan ditzan eta bertatik igarotzeko moduan gera dadin.

Era berean, bide berriko biribilgunea eta bere loturak lurzatatik ahalik eta gehien urrun daitezzen proposatzen dute, eraikuntza eta lurzatiak bera babestuko luketen espaloiez edo tarteko espazio libreez hornituz.

2. Agaramundo lurzatiak eta bertako eraikina, lurzoru hiritarrezin gisa sailkatuta daude dokumentuan, hau da, ingurune hiritar baten barruko landa-irla baten gisa. Baina, inguruko baldintzak ikusita, gure iritziz betetzen ditu lurzoru hiritar finkatu gisa sailkatzeko eskatzen diren legezko betekizunak; beraz, lurzati hori egoitza erabilerako eremu hiritar finkatu bezala arautuko beharko litzateke.

Alegazioari dagokion erantzuna:

Biribilgunea urruntzeari dagokionez, ahal den guztia egingo da baina betiere kontuan hartuta, arazo hau erabaki dezaketenez baliozko tresna bakarrak gero erredaktatuko diren Alorreko Plana eta Hiritartze Proiektua izango direla.

Agaramundo lurzatiak hartzen duen lurzorua birsailkatzeari dagokionez, alegazioa onartu egin dugu; beraz, ingurune hiritarrean dagoenez, egoitza erabilerako lurzati hiritar finkatua izatera pasako da.

Adierazitakoa aintzat harturik, ZERA ERABAKITZEN DA:

ONARTZEA JUAN ZABALA GOÑI jaunak, JOSE LUIS AMENABAR IRAZUSTA jaunak, M^a PILAR AMENABAR IRAZUSTA andreak eta M^a JESUS AMENABAR IRAZUSTA andreak aurkeztutako alegazioa.

* 5 zk. alegazioa: JOSE LUIS AMENABAR IRAZUSTA jaunak aurkeztua.

Alegazioaren edukia:

1. Gaintzabekoa-iparreki alde finka 5 eta 6 Alderdien mugen barruan geratu da. “Gaintza Behekoa Bat” 5. Alderdian sartu da eta jatorrizko finkaren gainerakoa, berriz, “Gaintza Behekoa Bi” izeneko 6. Alderdian sartu da. Alderdi baterako eta besterako hirigintza proposamen desberdinak egin dira.

Dokumentuan jasotako proposamena aztertu ondoren, honako proposamenak planteatu ditugu:

“Gaintza Behekoa Bat” 5. Alderdiari dagokionez:

a. Iparrekialdeko eta hegomendebaldeko lurzatiei hirigintza erregimen desberdina ematea, bakoitza lurzati independente gisa hartuz, bi lurzati ezaugarriak oro har finkatu egingo baitira.

b. “Gaintzabekoa-iparreki alde” lurzatiaren beheko oineko eraikuntza, hau da, eraikinaren iparreki aldean dagoen eta gaur egun etxebizitzari lotutako erabilera osagarria hartzen duen beheko oin horren eraikuntza bereziki finkatzea.

c. Eraikuntzaren profila: eraikin nagusia, hegomendebaldeko lurzatiaren gaur egungo profilerak (BO+2) egokitu beharko litzateke; eta, mendebaldeko fatxadari erantsita dagoen zatiak BO+EP izan beharko luke, profil hori bera mantenduz iparreki aldeko eta hegomendebaldeko lurzati osotasunean. Bestetik, iparreki aldeko BO finkatu behar litzateke.

d. Antolatu diren lurzatietakako etxebizitza kopurua: bi lurzatiengan antzeko etxebizitza kopurua ezartzea proposatzen dute, multzo osoak halako batasun eta homogenotasun bat gorde dezan.

e. Ondorioztatzen diren lurzatiak antolatzea: Dokumentazio grafikoa aztertuta antzeman daitekeenez, badirudi lurzatiengan antolamendua ez datorrela bat 5. Alderdiaren mugaketarekin eta egoitza erabilerako lurzatiak 6 Alderdiraino hedatzen dela. Hori horrela balitz, bidezkoa litzateke Alderdiaren mugak aldatzea, hiri bilbera egokitu eta kudeaketa ahalbidetu dadin.

f. 5 eta 6 Alderdien arteko muga doitzea: ondorioztatuko diren lurzatiak arrazoiz antolatze aldera, lurzatiaren muga doitzeko aukera aztertzea proposatu dute (lizentzien espedientean edo Xehetasunezko Azterketan).

g. Lagapen eta hiritartze lanei buruzko betebeharrak: Alegazio-jartzailearen iritziz ez da egokia iparrekialdeko lurzatiengan betebeharrak ezartzea. Era berean, galdetzen du espaloari buruzko betebeharrak hiri eraberritzeko edo berreraikitze jarduketan orotan aplikatzen ote den, bere ustez hegomendebaldeko lurzatiari baitagokio eginkizun hiri. Gainera, lursailaren maldak eta sestrak aintzat hartuta, espalo horrek berebiziko sarbide-arazoak sortuko lituzke lurzatiengan.

“Gaintza Behekoa Bi” 6. Alderdiari dagokionez:

a. Ondorioztatzen diren lurzatiak antolatzea: Dokumentazio grafikoa aztertuta antzeman daitekeenez, badirudi lurzatiengan antolamendua ez datorrela bat 5. Alderdiaren mugaketarekin eta egoitza erabilerako lurzatiak 6 Alderdiraino hedatzen dela. Hori horrela balitz, bidezkoa litzateke Alderdiaren mugak aldatzea, hiri bilbera egokitu eta kudeaketa ahalbidetu dadin.

b. 5 eta 6 Alderdien arteko muga doitzea, lizentzien espedientean edo Xehetasunezko Azterketan.

c. Lagapen eta hiritartze lanei buruzko betebeharrak:

d. Lurzatiaren ezaugarriak aintzat hartuta, finkatutako lurzoru hiritar gisa hartzea.

2. Hiritartze lanei dagokienez, gehiegizkoa eta kaltegarria deritzo espalo publikoak egiteko lurra laga eta bide publikoaren luzera osoan hiritartu beharra, alegazioan jasotako arrazoiek erakusten duten moduan.

3. Lurraldearen ezaugarri orografikoak aintzat hartuta eta, bestetik, 6. Alderdiak eta espazio libre eta ekipamendurako 10B lurzatiak hain sestra desberdinak dituztela ikusita, eraikuntzen artean distantzia egokiak ezartzea proposatzen du.

4. Alegazio-jartzaileak dioenez, Foru Aldundiaren uraren hornidurarako lurralde sarea, dokumentuan grafiatuta dagoena, oker dago “Gaintzabekoa iparreki alde” lurzatiari dagokion zatian, eta planoaren erantzen du, horren lekuko. Gainera, Foru Aldundiak egin beharreko hornidura sarearen trazadura aldatzea komeni litzateke eta hiriarteko errepidearen azpitik bideratzea, oraingo trazaduraren arabera zati bat alegazio-jartzailearen lurzatiatik igaro baiditzateke.

5. Gaur egun hondatuta dagoen ur hornidurarako udal sarearen trazadura aldatzea proposatzen du; zehazki, bide sare publikoaren azpian garatzea.

6. Saneamenduari dagokionez, estolderia sarea ez da “Gaintzabekoa-iparreki alde” lurzatiatik iragaiten; beraz, dokumentuan puntu hori zuzen dadin eskatzen du.

7. Idatzari planoak erantsi zaizkio, argibide gisa.

Alegazioari dagokion erantzuna:

Onar daiteke iparreki aldeko eta hegomendebaldeko lurzatiei hirigintza erregimen desberdina ematea eta “Gaintzabekoa-iparreki alde” lurzatiaren beheko oineko eraikuntza finkatzea. Era berean onar daiteke proposatu den eraikuntza-profila, bi lurzatiaren antzeko etxebizitza kopurua ezartzea, ondorioztatuko diren lurzatiak antolatzea eta 5 eta 6 Alderdiaren arteko mugak doitzeko.

Aitzitik, lagapen eta hiritartze betekizunei buruz dioena ez da onargarria, espaloiak egiteko betebeharrak finkatu egin behar baita. Hala eta guztiz ere, espaloia eraikuntza berriaren kontura egingo da, izan ere, sarrera-irteerak hobetu eta ikusgarritasuna zabaltzeaz gain, espaloia horrek jarraipena emango baitio aurreikusitakoari.

Eta, 10B lurzatiari buruz esandakori dagokionez, eraikuntzatik mugetara 10 metroko distantzia uztea erabaki da.

Azkenik, ur hornidurarako udal sareari dagokionez, Udala jabetu da arazoaz eta, egoki denean, sare horren trazadura lursail publikoetara eramaten saiatuko da.

Adierazitakoa aintzat harturik, ZERA ERABAKITZEN DA:

HEIN BATEAN ONARTZEA JOSE LUIS AMENABAR IRAZUSTA jaunak aurkeztutako alegazioa.

* 6 zk. alegazioa: ANGEL ELDUAYEN SORONDO jaunak aurkeztua.

Alegazioaren edukia:

Ados daude lurzattia Aitzpea Baserria Bat eta Aitzpea Baserria Bi izeneko bi unitatetan banatzearekin eta guztira 8 etxebizitza esleitzearekin. Aitzitik, ez daude konforme erabakitako probetxamenduarekin.

Hori horrela, Aitzpea baserria ordezteko eskaera egin du, eta Bat unitatean egin beharreko 4 etxebizitzetara Bi unitateko etxebizitzetara ezaugarri berak onartzea, eraikuntzaren profil eta gainerako baldintzetara dagokienez; hau da, S edo ES + BO + 2 oineko profila eta 9 metroko altuera, alegia. Idatziarekin batera, esparru honetako mugen barruan lurzati eraikigarriak izan dezakeen antolamenduaren eskema aurkeztu du.

Alegazioari dagokion erantzuna:

Proposamenak ezin du aurrera egin; izan ere, Aitzpea baserria ondarearen ikuspegitik katalogatutako eraikina denez eta, ondorioz, kontserbatu beharreko eraikina denez, dokumentuak baserri hori mantentzea aurreikusten du. Eta, etxebizitza berriei dagokienez, berriz, justifikatuta daude, baserriaren ingurune hiritarra mantentzeaz gain eraikin hori birgaitzeko aukera ematen baitu.

Adierazitakoa aintzat harturik, ZERA ERABAKITZEN DA:

EZESTEANGEL ELDUAYEN SORONDO jaunak aurkeztutako alegazioa.

* 7 zk. alegazioa: JESUS IGNACIO ASPIUNZA jaunak aurkeztua.

Alegazioaren edukia:

“Zubixiki Bi” 8 Alderdiari dagokionez, eremu honetaz kanpo utzi dira materialen gordailurako erabiltzen diren lursailak. Beraz, jabari pribatuko azalera eraikiezina, industriaren biltegi-jarduerara osagarri gisa erabiltzen den hori, mugatutako Alderdiaren barruan sartzeko eskatu du.

Alegazioari dagokion erantzuna:

Proposamena aztertuta ikusi dugunez, hirigintzaren ikuspegitik ez da onargarria biltegirako erabiltzen den eremu osagarria Alderdiaren barruan sartzea; beraz, alegazioan dioenak ezin du aurrerabiderik izan.

Adierazitakoa aintzat harturik, ZERA ERABAKITZEN DA:

EZESTE A JESUS IGNACIO ASPIUNZA jaunak aurkeztutako alegazioa.

* 8 zk. alegazioa: KELSEN enpresak aurkeztua.

Alegazioaren edukia:

Factoria Refractarios Kelsen enpresan egingo diren zabaltze lanen ondorioz sortuko diren premia berriak direla-eta, sarbideei buruzko proposamena egin du.

Alegazioari dagokion erantzuna:

Proposamena aztertzen ari gara, Arauen dokumentuan jaso daitekeen ala ez erabakitzeko.

Adierazitakoa aintzat harturik, ZERA ERABAKITZEN DA:

HEIN BATEAN ONARTZEA KELSEN enpresak aurkeztutako alegazioa.

BOSTGARREN PUNTUA:

“HAURRESKOLAK PARTZUERGOA”REN ESTATUTOAK, HIRU URTETIK BEHERAKO HAURREN ESKOLAK ETA HAUEI ZUZENDUTAKO ASISTENTZIA ETA HEZKUNTZA-ARRETA KUDEATZEKO “HAURRESKOLAK PARTZUERGOA”REN ERAKETARAKO EUSKO JAURLARITZA ETA ADUNAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, ETA HITZARMEN HONEN ERANSKINA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA. ETA ZIZURKILEN KOKATURIK DAGOEN HAURRESKOLAKO GESTIOA AURRERA ERAMATEKO ZIZURKILGO UDALAREKIN SINATU BEHARREKO KONTRATUA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Aurkeztutako Estatutoak, Hitzarmena eta hitzarmenaren Eranskina azterturik, Udaltzako, aho batez, zera erabaki du:

Lehenik: Haurreskolak Partzuergoaren Estatutoak onartzea.

Bigarrenik: Hiru urtetik beherako haurren eskolak eta hauei zuzendutako asistentzia eta hezkuntza-arreta kudeatzeko "Haurreskolak Partzuergoa"-ren eraketarako Eusko Jaurlaritza eta Udal honen arteko Lankidetzeta-Hitzarmena onartzea.

Hirugarrenik: Aipatutako Lankidetzeta-Hitzarmenaren eranskina onartzea.

Eta bestetik, Zizurkilen Pedro M^a Otaño Eskolako eraikinean kokaturik dagoen Kuttuna haurreskolako gestioa aurrera eramateko Zizurkilgo Udalarekin sinatu beharreko kontratua onartzea eta Alkateari kontratu hau sinatzeko boterea ematea.

SEIGARREN PUNTUA: ZENBAIT MOZIOEN AZTERKETA.

Aurre-matrikulazio garaian euskalduntzen duen eskola helburuari buruz Eusko Legebiltzarrak 2.005eko abenduan onartutako Legez Besteko Proposamenaren harira Adunako Ezker Abertzaleak aurkezturiko mozioa aztertu ondoren, bertartutako sei zinegotzietatik hiruen adostasun eta hiruen abstentzioarekin zera erabakitzen dute:

1.- Herri mailako egoera soziolinguistikoaren azterketa egitea, euskaldunduko duen eredu horri urratsak emateko.

2.- Aurre-matrikulazio garaian begira eta euskaldunduko duen ereduaren alde egitea; alegia, D ereduaren alde.

3.- Adunako Udalak beharrezko bitarteko guztiak jartzeko konpromisoa hartzea, euskalduntzea bermatuko duten normalkuntza plangintzen zerbitzuan. Bide horretan, arreta berezia eskainiko zaio udalaren esku dagoen hezkuntza ez formalaren alorrari. Udalak eskaintzen edota babesten dituen ekimen guztietan euskarazko eskaintza osoa bermatuko duela ziurtatuz (aisialdi, kirol, kultur...ekimenak).

ZAZPIGARREN PUNTUA: ZENBAIT DIRULAGUNTZEN AZTERKETA.

1.- Xabier Isasa Balanzategi Jaunak Gaindegiaren izenean Euskal Herri mailako inkesta ekonomiko eta sozial nagusiak jaso eta jarraipena egiteko egitasmorako

aurkezturiko dirulaguntza eskaera aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, 800 €-tako dirulaguntza ematea erabaki du.

2.- Serge Zudaire Jaunak Seaskako ikastolen festa nagusirako aurkezturiko dirulaguntza eskaera aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, 165 €-tako dirulaguntza ematea onartzen du.

3.- Jon Miranda Labaien Jaunak Txolarre Irratiko zuzendariak Txolarre irratirako aurkezturiko dirulaguntza eskaera aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, 352 €-tako dirulaguntza ematea erabaki du.

**ZORTZIGARREN PUNTUA:
ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA.**

1.- Gipuzkoako Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofizialak herriguneko zuzendaritzari buruz aurkezturiko 4.235,09 faktura aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, faktura hau onartzea erabaki du.

2.- Loatzo musika eskolak Udalak 2.006 .urtean egin beharreko aurrekontuaren %50eko ekarpenaren inguruan aurkezturiko 5.836,45 €-tako idatzia aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, ekarpenaren zati hau ordaintzea erabaki du.

**BEDERATZIGARREN PUNTUA:
ALKATEGOAREN INFORMAZIOA.**

Alkateak azken Plenoa egin zenetik gertatu diren gai interesgarrien eta hartutako erabakien berri ematen du eta Udalbatza jakinaren gainean geratzen da.

Beste Aztergairik gabe, hogeita hiru ordu eta hogeitabost minutu direnean, Batzarra amaitu da, eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.